



- 2019ko TALDE LEHIAKETA - Getxoko 43. Nazioarteko Jazzaldia

Parte hartzeko baldintzak

1. Lehiaketara jazz musika jotzen duen Europako edozein talde aurkez daiteke, zein ere den haren joera edo estiloa. Hautapen Batzordeak haietariko LAU talde aukeratuko ditu, 2019ko uztailaren 3an eta 6an bitartean joko dutenak hain zuzen ere.
2. Lehiaketan parte hartzen dutenen gehienezko adina 30 urtekoa da, 2019 urtean betetzekoa eta inskribatzeko orduan kreditatu beharrekoa.
3. Parte hartzeko eskabide orriei, taldearen kalitatearen egiaztagarri izan daitekeen edonolako materiala erantsiko zaie, taldeak grabatutako CD bat eta kalitate oneko ARGAZKI BAT bidaltzea erabat ezinbestekoa delarik.
4. Izenemateko epea otsailaren 9an 13:00etan itxiko da.

Aukeratutako taldeak

5. Aukeratutako taldeek eskudirutan jasoko dute konpentsazioa joan etorriko gastuei aurre egiteko:
 - **200 €** Euskadiko taldeentzako
 - **700 €** Espainiako taldeentzako
 - **1200 €** Frantzia, Portugal, Herbehereak, Luxenburgo, Belgika eta Suitzako taldeentzako
 - **1500 €** Italia, Erresuma Batua, Irlanda, Danimarka, Alemania, Austria, Txekiar Errepublika, Bosnia-Herzegovina, Kroazia eta Esloveniako taldeentzako
 - **1800 €** Suedia, Finlandia, Norvegia, Errumania, Bulgaria, Zipre, Grezia, Hungaria, Polonia, Eslovakia, Albania, Mazedonia, Montenegro, Serbia, Estonia, Letonia, Lituania, Islandia, Malta eta Errusiako taldeentzako

Halaber, jaialdiak musikari guztiei emango die ostatu Getxoko hostaletan, eta musikari bakoitzak 35 euro jasoko ditu egunean dieta gisa.

6. Jotzeko denbora Antolakundeak berak xedatuko du eta taldeei behar adinbateko lehentasunaz jakinaraziko zaie.



7. Aukeratutako taldeei derrigorrezko doinu bat ezarri ahal izango die Getxoko Jazzaldiaren Antolakundeak. Prestatzeko behar beste denboraz jakinaraziko die zein.

8. Epaimahaiaren erabakia ezin gora joko da eta bidezko deritzona erabaki dezake.

9. Baliteke lehiaketa telebistarako grabatua izatea.

10. Honako sariak ezarri dira:

- LEHEN SARIA: 4.300 euro*, disko baten edizioa** eta trofeoa.

- BIGARREN SARIA: 1.800 euro* eta trofeoa.

- BAKARLARIRIK ONENA: 900 euro* eta trofeoa.

Oharra: talde irabazleak beste kontzertu bat emango du uztailak 7an, igandea.

(*) Indarrean dauden zerga-arauen arabera, zenbateko horiei dagozkien derrigorrezko atxikipenak egingo zaizkie.

(**) Diskoa "zuzenean" egingo da, talde irabazlearen ekitaldi bien grabaketak erabiliz. Egile eskubideen gisa, talde irabazleari kaleratutako diskoen %10a emango zaio.

Azken zehazkizunak

11. Nora jo informazio bila eta izenematerako:

GETXOKO KULTUR ETXEA
Nazioarteko Jazzaldia
Villamonte A-8 behea
48991 Algorta-GETXO (BIZKAIA)
Tfno. zkia.: 94-4914080
Email: isaitua@getxo.eus
www.getxo.eus/jazzgetxo/

12. Antolakundeak bere esku du oinarri-arau hauen aldatzea, baldin eta hala behar balitz.

13. Getxoko Europar Jazzaldiaren Talde Lehiaketan parte hartzeak oinarri-arau guzti hauek onartzea esan nahi du.